



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko maiatzaren 14a

69. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

—11-24/LEY-00004. Foru-lege proiektua, zeinaren bidez Nafarroaren Garapen Sozietatea SLri baimena ematen baitzaio Dynamobel SA finantzatzeko (2. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-24/MOC-00066. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Elikakatearen Behatokiaren ekintzak indartu ditzan eta bidezko prezioak ezar ditzan lehen sektorean. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (3. or.).

—11-24/MOC-00067. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Gazako zerrendan egiten ari diren genozidioa salatzen baitu eta Israeli exijitzen baitio Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa eta NBEren ebazpenak bete ditzan. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak aurkeztu du (4. or.).

—11-24/MOC-00068. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egiteke dauden azpiegiturak bultzatzeari dagokionez hartutako konpromisoak bete ditzan. Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztu du (6. or.).

—11-24/MOC-00069. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesa ematen baitio tauromakiari, eta errefusatu egiten baititu Espainiako Gobernuak tauromakiari egindako erasoak. Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztu du (8. or.).

—11-24/MOC-00070. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan delinkuentziaren igoerari aurre egiteko talka-plan bat taxutu dezan eta plana Legebiltzarrera igor dezan. Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztu du (9. or.).

—11-24/MOC-00071. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Espainiako Gobernua premia dezan Tauromakiako Sari Nazionala berrezartzera. Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztu du (10. or.).

—11-24/MOC-00072. Mozioa, zeinaren bidez Nazioko Gobernua premiatzen baita segurtasun pribatuari buruzko araudia gaurkotu eta egokitu dezan. Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztu du (11. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

11-24/LEY-00004. Foru-lege proiektua, zeinaren bidez Nafarroaren Garapen Sozietatea SLri baimena ematen baitzaio Dynamobel SA finantzatzeko

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko maiatzaren 13an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2024ko maiatzaren 8an hartutako Erabakiaren bidez, foru-lege proiektu bat igorri dio Nafarroako Parlamentuari. Horren bidez, Nafarroaren Garapen Sozietatea SLri baimena ematen zaio Dynamobel SA finantzatzeko.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 179. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrekin adostu ondoren, ERABAKITZEN DA:

1. Aipatu foru-lege proiektuaren izapidetzea zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea.

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru-lege proiektua, zeinaren bidez Nafarroaren Garapen Sozietatea SLri baimena ematen baitzaio Dynamobel SA finantzatzeko

ZIOEN AZALPENA

Nafarroaren Garapen Sozietatea SL sozietate publikoak Parlamentuaren berariazko baimena

eskatu du Dynamobel SArentzako finantzaketa-eragiketak egiteko. Eragiketa horiek dira, zehazki, bi milioi euroko ekarpena egitea kapital sozialari eta bi milioi euro arteko abala ematea.

Eskaera horrek honako hauek ditu oinarri: 1/1984 Foru Legea, urtarrilaren 2koa, Nafarroako Garapen Sozietatea (SODENA) sortzeari buruzkoa; 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa; 2/2024 Foru Legea, martxoaren 13koa, 2024rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa –hark baimendutako gehieneko zenbatekoaren barruan dago–; eta Nafarroako Gobernuaren Erabakia, 2024ko otsailaren 21ekoa, Nafarroaren Garapen Sozietatea SL (SODENA) sozietate publikoari baimena ematen diona 2024an abalak emateko, 20.000.000 eurokoak gehienez, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 82. artikuluan ezarritakoarekin bat. Arau horietan ezarritakoaren esparruan, eta kontuan hartuta eragiketaren garrantzi berezia, enpresa horrek Azkoien inguruan duen eragin sozioekonomikoa oso handia baita, egokia da berariazko baimena ematea SODENari Dynamobel SA finantza dezan.

Artikulu bakarra. Dynamobel finantzatzeko baimena.

Baimena ematen zaio Nafarroaren Garapen Sozietatea SL sozietate publikoari Dynamobel SA finantzatzeko eragiketak egiteko. Eragiketa horiek dira, zehazki, bi milioi euroko ekarpena egitea kapital sozialari eta bi milioi euro arteko abala ematea.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/MOC-00066. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premia- tzen baita Elikakatearen Behatokiaren ekintzak indartu ditzan eta bidezko prezioak ezar ditzan lehen sektorean

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premia-tzen baita Elikakatearen Behatokiaren ekintzak indartu ditzan eta bidezko prezioak ezar ditzan lehen sektorean.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Landa Garapene-ko eta Ingurumeneko Departamentua arduratuko da horren jarraipena egiteaz.

Zioen azalpena

Lehen sektoreak une kritikoa bizi du, ez soilik herrialde osoan, ezpada Europan eta Nafarroako Foru Komunitatean ere. Hori dela-eta, sektoreak azken hilabeteotan mobilizazio handiak egin ditu, neurri zehatzak exijituz, zeinek Europar Batasune-ko, estatuko nahiz autonomia-erkidegoetako bote-re publikoek erantzun bat ematea eskatzen duten.

Koiuntura bereziki zaila bizi dugu; berotze glo-balak eta klima-aldaketak eragin gero eta handia-

go dute nekazaritzan (lehortaldi luzeak, tenpera-tura altuko eta uholde-euri alderrai-ko boladak), eta horri gehitu behar zaizkio merkatuen globali-zazioarekin edo elikakatearen desorekarekin zeri-kusia duten faktore guztiak.

Nekazaritza eta abeltzaintza funtsezko jarduerak dira gizartearentzat, hala elikagai-horniduran duten garrantziagatik nola landa-eremuen garapenerako eta ingurumena zaintzeko duten garrantziagatik.

Sektoreak nahiz gure landa eremuek etorkizu-na izan dezaten, beharrezkoa da nekazari-ek, industriek, banaketa-enpresek eta kontsumi-tzaileek elkarren eskutik egokiro jardutea.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-propo-samenak aurkezten ditugu:

1. Espainiako Gobernua premia-tzea Elikakate-aren Behatokiaren ekintzak indartu ditzan eta bidezko prezioak ezar ditzan lehen sektorean, banatzaileen etekin-marjinak doitu-ta, halako moduan non ekoizleak nahiz kontsumitzaileak lor-tuko baitute onura.

2. Espainiako eta Nafarroako gobernuak premia-tzea nork bere eskumen-eremuan areagotu ditzan Elikakatearen Legea ez betetze-ari buruzko ikuskapenak, bereziki zenbait banaketa-enpresa-ren irabazi-marjinak direla-eta egindako abusuei dagokienez.

3. Espainiako Gobernua premia-tzea erraztu dezan elikakatean sortzen diren plusbalioak modu ekitatiboagoan bana daitezten nekazaritza-ko elika-gaien ekoizleen, prestatzaileen, banatzaileen eta merkaturatzaileen artean, halako moduan non elika-kateko inongo katebegirik ez baita behartuta ego-nen dirua irabazi gabe edo dirua galduz saltzera.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 8an

Eleduna: Ramón Alzórriz Goñi

11-24/MOC-00067. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Gazako zerrendan egiten ari diren genozidioa salatzen baitu eta Israeli exijitzen baitio Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa eta NBEren ebazpenak bete ditzan

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Gazako zerrendan egiten ari diren genozidioa salatzen baitu eta Israeli exijitzen baitio Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa eta NBEren ebazpenak bete ditzan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, 2024ko maiatzaren 16ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordea arduratuko da mozioaren jarraipena egiteaz.

Zioen azalpena

Jasanezina da egoera Palestinan.

Azken zazpi hilabeteotako erasoaldian, Israelek 34.500 pertsona baino gehiago erail ditu, eta 78.000 baino gehiago zauritu; % 70 emakumeak eta neska-mutikoak ziren. Eta uste da hondakinen azpian 10.000 pertsona daudela desagertuta.

UNICEFek ohartarazi du neska-mutiko bat hil edo zauritzen dutela Gazan hamar minutuan behin.

NBEren Biltzar Orokorrek ebazpen bat onetsi zuen abenduan, Gazan "berehalako su-eten humanitarioa" eskatzeko. NBEren Segurutasun Kontseiluak, bestetik, ebazpen bat onetsi zuen 2024ko martxoaren 25ean, ramadaneko hilabete-

an su-etena eskatzeko. Israelek entzungor egin zien bi ebazpen horiei.

1967tik okupatutako Palestinako lurraldeetan giza eskubideak zertan diren azaltzeko NBEren errelatore berezi Francesca Albaneseren arabera, Israel genozidioa egiten ari da Gazan. Bestetik, NBEren Giza Eskubideen Kontseiluaren errelatore berezi Tlaleng Mofokeng hegoafrikarrak salatu zuenez (pertsonek orok ahal den osasun fisiko eta mentalik handiena izateko eskubideari buruzko errelatore berezia baita), osasuna izatearen aurkako gerra izan da hasieratik beretik Israel Gazan egiten ari den genozidioa. Gazako osasun-sistema zeharo suntsitua da, eta osasunerako eskubidea izugarri murriztu da, maila guztietan murriztu ere, Gazako zerrendan.

Gazako biztanleriarik gehienak behartuta lekuz aldatu behar izan du, zerrendaren hegoaldera gehienbat, Rafah-ra. Eremu horrek ez dauka behar adina azpiegitura eta baliabiderik bertan pilatutako 1,5 milioi pertsona baino gehiago mantentzeko. Iragan astelehenean, maiatzak 6, Israelgo armadak Rafah-ko zenbait alderdi bonbardatu zuen, eta ehunka biktima zibil eragin. Halaber, Gazako sarbide guztiak ixteko agindua eman zuen eta laguntza humanitarioa hara sartzeari bertan behera utzi zuen. NBEk alarma-oihuan jo zuen; izan ere, Gazako zerrendan ez dago hornidurarik, eta egunero sartzen den laguntza humanitarioa hil ala bizikoa da gazatarrentzat, horietako asko eta asko erabateko gosetearen mugan baitaude dagoeneko.

Bitartean, laguntza-tona ugari (bazkaria batez ere) daramaten ehunka kamioi geldirik daude Gazako zerrendaren sarreran, Israelek hara sartzeko baimena noiz eman dien zain.

Laguntza humanitarioa, neurri handi batean, UNRWaren ahalmenaren arabera da. Nazio Batuen Agentzia, ordea, kolapsoaren mugan dago. UNRWako gutxienez ere 180 kide hil direla baieztatu da. Onartezinak dira NBEk Gazan egiten dituen operazioekiko Israel erakusten ari den mespretxua eta Nazio Batuen Agentzia horren aurka egiten ari den desprestigio-kanpaina.

Aipagarriak dira, orobat, mundu osoan zehar genozidioda salatzen duten protestak eta Palestina-ko herriarekiko elkartasun-adierazpenak.

Nafarroan, herritarrek mobilizazio jendetsuak egin dituzte sarritan, Israel Gazan egiten ari den genozidioda salatzeke eta berehalako su-etena exijitzeko.

"Yala Nafarroa Palestinarekin" plataforma plural, transbertsal eta askotarikoa da, 2023ko azaroran sortu zena, honako hauek aldezteko: giza eskubideak eta su-etena Gazan eta bake justu eta iraunkorra Palestinan. 1.390 pertsonaren eta 175 talderen atxikimendua lortu du orain arte.

Askatasunaren Flotilla izenekoak ere aldi baterako bertan behera utzi behar izan du, Israelen presioen erruz, bere eginkizun humanitarioa. Benjamín Netanyahuaren gobernuaren etengabeko eragozpen burokratikoak eta presioak ikusita, organizazioak geroratu egin behar izan du Gazara eraman nahi zuen 5.500 tonako laguntza humanitarioa. Flotillak helburu argia zeukan: Palestinako herriari ematea urgentziaz behar duten laguntzaren parte bat, goseak eta gaixotasunak ez dezaten biktima-kopuru eskandalagarria ugaltu. Ekimen horren bidez orobat lortu nahi dute Israelgo gobernu palestinarren aurka darabilen genozidioak ikusgaitasun handiagoa izan dezan.

Zamaontzi batek, ferry batek eta bidazti-ontzi batek osatzen zuten Askatasunaren Flotilla, 30 herrialdetik gorako boluntarioak zeuzkana; besteak beste, kazetariak, sendagileak, erizainak, abokatuak, diplomatikoak eta hautetsiak.

Bestalde, mundu osoan zehar hedatzen ari den ikasleen elkartasun-olatu Nafarroara ere iritsi da; halatan, Palestinarekiko elkartasun-ekimenak abiarazi dituzte dozenaka ikaslek: kanpaldi bat NUPen, hainbat biltzar eta mobilizazio...

Gazan jada ez da gelditzen populazio zibilarentzako toki segururik.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Israel Gazan egiten ari den genozidioda salatzen du, eta elkartasuna adierazten dio palestinar herriari.

2. Nafarroako Parlamentuak Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa eta NBERen ebazpenak bete ditzan exijitzen dio Israeli.

3. Nafarroako Parlamentuak Israel premiatzen du korridore humanitarioak irekitzea onar dezan eta berehalako su-etena iraunkorra dekreta dezan Gazan eta Zisjordanian.

4. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuak premiatzen du Palestina eskubide osoko estatu gisa aitortze dezan eta palestinar herriari ematen zaion laguntza humanitarioa handitu dezan.

5. Nafarroako Parlamentuak bere babes adierazten dio Nazio Batuen Erakundearen UNRWA Agentziari, ezinbesteko lana egiten duela aitortzen du, eta haren funtzionario erailengatiko dolumina adierazten du.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari, Estatuko Gobernuari eta gainerako nazioarteko eragileei eskatzen die mantentzaten Palestinarekiko jadaneko lankidetzak proiektuak, eta babes ditzaten alor horretan lan egiten duten entitateak, hala nola UNRWA.

7. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuak eta nazioartea premiatzen ditu areagotu ditzaten gerra-egoera baretzera eta bake iraunkorra lortzera bideratutako urrats diplomatikoei bultzada emateko ahaleginak.

8. Nafarroako Parlamentuak aldeko jarrera adierazten dio "Yala Nafarroa Palestinarekin" elkarteari, eta aldeztu egiten du giza eskubideen eta Palestinan bake justu eta iraunkorra lortzearen alde egiten ari den lana.

9. Nafarroako Parlamentuak bere babes adierazten dio "Askatasunaren Flotilla"ri, eta Israel premiatzen du ez dezan eragotz laguntza humanitarioa Gazako zerrendako herritarrengana helaraztea.

10. Nafarroako Parlamentuak bere babes adierazten dio palestinar herriarekiko elkartasuna eta babes adierazteko ekimenak egiten ari den ikasle-mugimenduari.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 8an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-24/MOC-00068. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita egiteke dauden azpiegiturak bultzatzeari dagokionez hartu-tako konpromisoak bete ditzan

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita egiteke dauden azpiegiturak bultzatzeari dagokionez hartutako konpromisoak bete ditzan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak premia-tzen baitu azpiegiturak bultzatzeari dagokionez Nafarroarekin hartutako konpromisoak bete gabeak bete daitezzen, hala nola A-15 autobia, Abiadura Handiko Trena eta Nafarroako Ubidearen bigarren fasea, aurrekontu-kronograma ongi zehaztua ezarrita hiru azpiegitura horiek direla-eta.

Zioen azalpena

Foru-erkidegoan hiru azpiegitura daude oinarrikoak direnak erkidegoaren oraingo nahiz gero-ko garapenari begira eta atzerapen onartezina pairatzen ari direnak Espainiako Gobernuak eta Nafarroako Gobernuak hartutako beste konpromiso batzuen aldean.

Honako hiru hauei buruz ari nahiz argi eta garbi: Nafarroako Ubidearen bigarren fasea, Abiadura Handiko Trena eta A-15 autobia.

Nafarroako Ubidearen bigarren faseari dagokionez (ura eramane du Itoizko urtegitik Erriberaraino), adierazi beharra dago ezen aurkeztutako alegazioak maiatzaren 3an oraindik ebatzi gabe daudela, alegazioak aurkezteko epea bukatu zenetik 14 hilabete igaro diren arren.

Argi dago geldiarazte horrek proiektu osoa moteltzen duela obrak lizitatu aitzin egin behar-reko gainontzeko izapideei dagokienez.

Ezer gutxi dakigu, gainera, bideragarritasun ekonomiko-finantzarioari buruzko azterlanari buruz, obrak egiteko Nafarroako eta Espainiako gobernuak sinatu beharreko finantzaketa-hitzarmena baino lehen egin beharreko urrats horri buruz.

Hortaz, ubidearen bigarren fasea erabateko zehaztugabetasun-egoeran dago, are gehiago kontuan hartzen badugu Unión del Pueblo Navarrok (UPN) behin eta berriz eskatu duela zehatz dadin zer noiz egingen den, zer epe, aurreikuspen eta aurrekontu-izendapen izanen dituen, baina Nafarroako Gobernuak oraindik ez du kronograma zehatzik definitu, eta egiten duen gauza bakarra da Chivite kontseilariaren bidez adierazi "ahal denean" egingen dela.

Bigarrenik, eta Nafarroako AHTri dagokionez, Espainiako Gobernuak ez dauka azpiegitura hori egiteko inolako interesik.

Estatuko gobernuak Nafarroa ahaztuta daukate, era nabarmenean, eta behin baino gehiagotan gertatu da Nafarroako Gobernuak akordioak sinatu azpiegitura hori egiteko, baina gero horiek ez direla bete.

Egia da, orobat, Rajoy jaunaren gobernuak aurrekontu-akordio bat sinatu zuela UPNrekin 2018an, zeinari esker zenbait tarte egin ahal izan baitira Nafarroan, eta Sánchez jaunaren gobernuak tarte handi samar bat lizitatu duela orain dela zenbait hilabete.

Halere, aski da Nafarroako elkargo profesionalei entzutea ohartzeko inbertsio-ahalegin askoz ere handiagoa egin beharra dagoela obrak egiteko arazoizko plangintza bat eduki ahal izan dezagun.

Gauzak horrela, oraintsu jakin dugu Iruñeko Udalak, zeina EH Bilduk gidatzen baitu, ia 90 ale-

gazio aurkeztu dituela, egin dadin nahi ez duten proiektu bat moteltzen jarraitzeko helburuarekin.

Zeri buruz ari garen ohartzeko, horra zenbait datu:

Espanian abiadura handiko 3.967 kilometro egin dira, eta inbertsioa 57.300 milioi eurokoa izan da; Nafarroan, aldiz, plataformako 40 kilometro egin dira (trenbidea bera eta elektrifikazioa falta dira), eta inbertsioa 233 milioi eurokoa izan da. Adierazi beharra dago, halaber, Iruñea dela, urtean ibilbide luzeko 780.120 bidaiari dituen arren, abiadura handiko trenik ez daukan bidaiari-kopuru handieneko geltokia.

Bukatzeko nabarmendu behar da zer-nolako eginkizuna izan lezakeen A-15ak, Nafarroako autobia izenez ere izendatuak, ez soilik salgaien eta herritarren garraio seguruari begira, ezpada eskualdearen eta nazioaren garapen ekonomikorako ardatz estrategiko gisa ere; izan ere, Espainiako hiriburuarekiko komunikazioa bermatuko dio Nafarroako Foru Komunitateari, bai eta Errioxari eta Soriako eta Zaragozako probintzietako zati handi bati ere, despopulazioak larriki ukitutako eremuak baitira.

Halere, Estatuari dagokion zatian, adibidez Gaztela eta Leonen, azpiegitura hori egiteko urratsak egiten ari diren arren, azpiegitura horrekiko lotura egiteko Nafarroan egin behar diren tarteak geldi-geldirik daude, nahiz eta María Chiviteren gobernu sozialistak orain dela ia urtebete iragarri zuen Estatuarekin berehala sinatu zela hori egiteko hitzarmena.

Horregatik guztiagatik, inork ez daki zer-nola egingen diren Nafarroaren garapenerako giltzarri

diren proiektu horiek, baldin eta bi gobernuen borondate politiko eskasari gehitzen bazaio Estatuan aurrekonturik ez dagoela eta PSNren eta PSOEn bazkide batzuek, Nafarroan nahiz Estatuan politika baldintzatzen dutenek, ez dutela sinesten Nafarroarendako azpiegitura horietan.

Erabaki-proposamena:

1. Uda baino lehen ezartzea hiru azpiegitura horietarako aurrekontu- eta denbora-kronograma ongi zehaztu bat.

2. Espainiako Gobernuari eta Nafarroako Gobernuari exijitzea ehun milioi euro igo dezaten dagokien finantzaketa, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea bideragarria izan dadin eta urreztailleen tarifak jaisten laguntzeko.

3. Espainiako Gobernuak Abiadura Handiko Trenaren Nafarroako tartea egitera bideratzen duen urteko aurrekontua igotzea.

4. Nafarroako Gobernuari eskatzea Espainiako Gobernuari exiji diezaion denik eta bizkortasun handienarekin lizita ditzan Iruña-Madril autobiairen tarteak.

5. Azpiegitura horietako bakoitzari dagozkion hitzarmenak sinatzea Espainiako Gobernuarekin, Nafarroa horietan buru izan ahal izateko eta garbi gera daitezen egiteke dauden jarduketak direla-eta hartutako konpromisoak, horiek egiteko aurreikusitako epea eta horiei ekiteko aurrekontu-zuzkiduraren bermea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 8an

Eleduna: José Javier Esparza Abaurrea

11-24/MOC-00069. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesa ematen baitio tauromakiari, eta errefusatu egiten baititu Espainiako Gobernuak tauromakiari egindako erasoak

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesa ematen baitio tauromakiari, eta errefusatu egiten baititu Espainiako Gobernuak tauromakiari egindako erasoak.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesa ematen baitio tauromakiari, eta errefusatu egiten baititu Espainiako Gobernuak tauromakiari egindako erasoak.

Zioen azalpena

Espainiako Gobernuak Kulturako ministro Ernest Urtasunen bidez jakinarazi du kendu egin duela Tauromakiako Sari Nazionala.

UPNren aburuz, zenbait legeren aitortpena eta babesa duen Nafarroako aspaldi-aspaldiko ohitura baten aurkako eraso funsgabe bat da.

Hala, tauromakia azaroaren 12ko 18/2013 Legearen babesa du; izan ere, kultur ondareztat hartzen du, Espainiako lurralde osoan babestu beharrekoa, bai eta maiatzaren 26ko 10/2015 Legearena ere, gure kultur ondare immateriala babesteko.

Bi lege horien aurkako errekurtsorik ez da inoiz aurkeztu; hortaz, administrazio publiko guztiek errespetatu eta sustatu behar dituzte.

Ez Nafarroa ez Espainia ez lirateke tauromakiarik gabe ulertuko; izan ere, jarduera horrek, gure tradizioaren eta kulturaren parte izateaz gain, ekonomia eta enplegua sortzen ditu.

Kontrakoa adierazi nahi duten ahots kritikoak gorabehera, zezenaren munduak osasun ona izaten jarraitzen du Nafarroan; izan ere, abeltzaintzako 64 ustiategi dauzkagu, 15.000 ale baino gehiago dituztenak; familia asko bizi dira hortik, urtean zehar egin ohi diren 1.700 zezen-festa herrikoiei eta zezenketei esker.

Datu horiei guztiei Iruñeko errealitate berariazkoa gehitu beharko litzaioke, nazioartean erreferentea baita zezenaren munduan, sanferminak direla-eta.

Iruñeko zezen-plazak, sanferminetan (uztailaren 5etik 14ra), 20.000 ikusle hartzen ditu egunero, halako moduan non festa jendetsua eta milaka eta milaka nafarrek maitatua egiten baita.

Nafarroa da, gainera, bere lurraldean zezen-festa gehien egiten duten probintzietan hirugarrena, eta tauromakia Nafarroako udalen % 54an dago: ia 1.7000 zezen-festa egin ziren 2023ko denboraldian; horietarik 31, zezenketak.

UPNn ez dugu sanferminetan entzierrorik ez duen Nafarroarik nahi, eta ez dugu zezen-festarik gabeko jairik nahi gure herrietan.

Gure ustez, ikusita Pedro Sánchezen Gobernuak zezenen munduaren aurkako eraso (tauromakiaren artea balioan jartzeko balio zuen sari bat kendu du), gure jarrera politikoa argi uzteko unea da hau.

Erabaki-proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak erabat errefusatu ditu Espainiako Gobernuak, Pedro Sánchez buru duela, tauromakiaren kontra egindako erasoak et errefusatu egiten du Tauromakiako Sari Nazionala kendu izana.

2. Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten dio tauromakiari, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Espainiaren kulturaren funtsezko parte den aldetik.

3. Nafarroako Parlamentuak eskertu eta balioetsi egiten du zezenaren mundua, arte tradizional bat mantentzeagatik eta Nafarroako landa eremu askori balio sozial eta ekonomiko handia emateagatik.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 8an

Eleduna: José Javier Esparza Abaurrea

11-24/MOC-00070. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita Nafarroan delinkuentziaren igoerari aurre egiteko talka-plan bat taxutu dezan eta plana Legebiltzarrerara igor dezan

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita Nafarroan delinkuentziaren igoerari aurre egiteko talka-plan bat taxutu dezan eta plana Legebiltzarrerara igor dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Barne Ministerioak kriminalitateari buruz jendaurrean eta hiru hilean behin eskaintzen dituen datuen arabera, delinkuentzia urtez urte igozten ari da, eta igoera hori handiagoa da Nafarroan, batezbesteko nazionalarekin alderatzen badugu.

Kriminalitate-tasa batezbesteko nazionala baino 1,1 handiagoa da Nafarroan, gure inguruko autonomia-erkidegoetakoa baino 5 eta 15 puntu bitartekoa baino handiagoa, eta UPNren azken gobernuarekin zegoena baino 14,2 puntu handiagoa.

51,7 delitu 1.000 biztanleko, kopuru zinez kezagarria inondik ere, sexu-askatasunaren aurkako delituen nahiz gizartean alarma handia sortzen duten beste delitu batzuen eta ziberkriminalitatearen igoera itzela bezainbat.

Hortaz, arazoaren garrantziari ezin diogu muzin egin, eta ezin dugu ahanzi delinkuentziari erantzun multisektoriala eman behar zaiola, arreta delituaren prebentzioan jarrita. Oso garrantzitsua da delitua jada gertatu denean delitugilea atxilotzea, inpunitatea ekiditea eta biktimari arreta ematea, baina funtsezkoena da delituak gertatzea nola edo hala eragozte.

Egungo egoerak aparteko neurriak eskatzen ditu, argi baitago erabiltzen ari diren baliabideak ez direla aski erkidego seguru bat lortzeko. Aizitik, segurtasunik eza gero eta handiagoa da.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premia-tzen du talka-plan bat taxutu eta gehenez ere 6 hilabeteko epean Legebiltzarrerara ekar dezan, Nafarroan delinkuentziaren igoerari aurre egiteko.

2. Plan horrek, albo batera utzi gabe delituen jazarpena eta ikerketa eta biktimentzako arreta, erdigunean jarri beharko du delituaren prebentzioa, izaera multisektoriala izan beharko du eta bereziki arduratu beharko da gizartean alarma

handiena eragiten duten eta azken urteotan gehien igo diren delituen prebentzioaz (sexu-askatasunaren aurkako delituak, indarkeria eta larderia erabiliz egindako lapurretak, dolozko giza hilketak delituak, erailketak eta lesioak, eta ziberdelinkuentzia). Planak orobat jaso beharko du, berariaz jaso ere, gazteen banden fenomenoari aurre egiteko neurriak.

3. Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Batzordea arduratuko da mozioaren jarraipena egiteaz.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 9an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

11-24/MOC-00071. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Espainiako Gobernua premia dezan Tauromakiako Sari Nazionala berrezartzera

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Espainiako Gobernua premia dezan Tauromakiako Sari Nazionala berrezartzera.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Kultura, Kirol eta Turismo Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularraren talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuari zuzendutako honako mozio hau aurkezten du, batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Nafarroan zezen suharraren hazkuntzara soilik dedikatutako lehenbiziko ganadutegia 1670ean sortu zen, baina jakin badakigu XIV. mendean bertan zezen-festak egiten zirela Iruñean, eta

festa horietan erabilitako zezenak Nafarroako ganadutegietakoak zirela.

XVI. mendean –zehazki, 1528an–, Nafarroako abelgorriak esportatu ziren lehenbizikoz Mexikora. Juan Gutiérrez de Altamiranok, zeina Hernán Cortésen lehengusua baitzen, Nafarroako hamabi zezen eta behi pare eraman zituen hara, eta horiekin sortu zen Amerikan abelgorri suharren lehenbiziko ganadutegia, Atenco izenez ezagutua.

XVII. mendearen hondarrean, zezenketarako zezenak haztera berariaz dedikatutako lehen ganadutegia sortu zen Nafarroan. Joaquín Antonio Beaumont de Navarra y Ezcurrak 1670ean sortu zuen bere behitaldea Corellan.

XVIII. mendearen erdialdean kasta nafarreko lau lote nagusiak eratu ziren. Geroago, Karrikiri izan zen famarik eta errekonozimendu historikorik handiena lortu zuena, abeltzain modura.

Karrikiri abelburu suharren ganadutegi espainiarra da, Nazario Karrikiri nafar enpresaburuak sortua 1850ean, eta hortik heldu zaio izena. Sanferminetan toreatu zen lehenbiziko ganadutegia izan zen hori, eta hortik heldu da Iruñeko Zezenferian zezenik suharrenari ematen zaion sariaren izena.

Horko zezenik ospetsuenetako bat Llaveru izan zen, 1860ko urriaren 14an Zaragozan indultua jaso zuena. 53 eztenkada hartu zituen, eta pikatzeko 14 zaldi hil zituen. Haren burua Iruñeko Club Taurinon daukate.

Frogaturik dago, beraz, zezen suharraren tradizio handia dagoela Nafarroan, zezen suharra hazi izan dela zezenketetarako eta zezen-ikuski-

zunetarako, eta gaur egun gure herri askotako jaietako funtsa izaten jarraitzen duela.

Iragan astean, Kulturako ministro Ernest Urta-sunek iragarri zuen kendu egin dutela Tauroma-kiako Sari Nazionala, José Luis Rodríguez Zapa-tero lehendakariak 2011n ezarri zuenetik gure herrialdean eman dena.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

1. Nafarroako Gobernuak premiatzen dugu Espainiako Gobernuari eska diezaion Tauroma-kiako Sari Nazionala berrezar dezan.

2. Nafarroako Gobernuak premiatzen dugu aitor dezan tauromakia afizio legitimo bat dela, gure erkidegoan sustrai historiko eta sozial sakonak dituen, bereziki Nafarroako herri askotako jaietan.

3. Nafarroako Gobernuak premiatzen dugu Nafarroako adierazpide kultural bereki guztiak aldeztu eta susta ditzan, besteak beste tauroma-kiak, sormen artistikorako askatasuna eta kulturara-ko eskubidea ez baitira botere politikoaren hobes-penen arabera.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 9an

Eleduna: Javier García Jiménez

11-24/MOC-00072. Mozioa, zeinaren bidez Nazioko Gobernuak premiatzen baita segurtasun pribatuari buruzko araudia gaurkotu eta egokitu dezan

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nazioko Gobernuak premiatzen baita segurtasun pribatuari buruzko araudia gaurkotu eta egokitu dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen Emilio Jiménez Román jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 219. artikuluan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, 2024ko maiatzaren 16ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Segurtasun pribatuaren sektoreak aspalditik eskatzen du beharrezkoa den babesa zaintzaileek

jasaten dituzten segurtasun-gabeziaren eta eraso- en aurrean, horrek arrisku larrian jartzen baitu haien integritate fisikoa, baita haien lanbide- eta lan-estatusa ere.

Nabarmentzekoa da –eta ezin da inoiz ere ahaztu– segurtasun-zaintzaileek ematen duten zerbitzua segurtasun indar eta kidegoekin koordinatuta eta lankidetzan gauzatu dela, eta xede bakarra dela segurtasun publikoa hobetzea. Segurtasun orokorra integratu eta haren alde egiten duela, herritar guztien babesaren eta segurtasunaren zerbitzura. Eta, hala, alor eta eginkizun garrantzitsuetan jarduten dute, hala nola zaintza eta babes berezia behar duten gaiak gordailuan izatea eta zaintzea –duten arriskuagatik (lehergaiak, armak, substantziak edo salgaiak) edota duten balioagatik (moneta, titulu-baloreak, bitxiak, metal preziatuak, artelanak eta beste objektu batzuk); pertsona fisiko jakinen akonpainamendua, defentsa eta babesa (agintariak barne); ondasun, establezimendu, toki eta ekitaldi publiko eta pribatu- en eta bertan daudenen zaintza eta babesa; edota kontrol-, bidezaintza- edo alarma-zentroak ustiatzea. Eta horrek ahalmen handia du interes orokorrerako eta publikorako.

Horiek oinarri hartuta, agerikoa da segurtasun pribatuaren sektoreak babes handiagoa behar duela, sektoreari behar duen duintasuna emateko eta bere eginkizunak hobeto betetzeko: estatus juridiko-profesionalaren babesa, babes materiala, lan-babesa eta prestakuntzaren arlokoa, bai eta kontratazio publikoaren arlokoa ere. Behar hori

asetzeko, beharrezkoa da, alde batetik, sektorea zuzentzen duen araudia eguneratzea –izan ere, alor horretan nabarmentzekoa da egun zaharkituta dagoen Segurtasun Pribatuari buruzko Erregelamendua, abenduaren 9ko 2364/1994 Errege Dekretuak onetsia, beraz, 25 urte baino gehiago dituena –, eta beste alde batetik gobernuen eta administrazio publikoen arteko konpromiso bat, alor horretan dituzten eskumenetan jarduteari buruzkoa.

Lehenik eta behin, babes juridiko-profesionala, segurtasun pribatuko zaintzaileei argi eta garbi aitortzeko agintaritzaren agente-izaera beren eginkizunen jardunean –hori bera aipatzen da Segurtasun Pribatuari buruzko apirilaren 4ko 5/2014 Legearen 31. artikuluan: “segurtasun pribatuaren eremuko jarduerak egiten dituen segurtasun indar eta kidegoekin koordinatuta eta haien agindupean”–; izan ere, segurtasun pribatuaren zerbitzuak eta eginkizunak beti eta toki guztietan egiten dira segurtasun indar eta kidegoekin koordinatuta eta lankidetzan eta horien aginduei lotuta –hala xedatzen da, besteak beste, arautzen duen legearen 8. artikuluan, printzipio gidariei buruz–, horrek dituen ondorio guztiekin alor penalean (erasoen tipifikazioa) eta prozesalean (lekuko gisa deitzea eta agertzea, Barne Ministerioak emandako nortasun-agiri profesionalaren gaikuntza-zenbakiarekin).

Horretaz gain, beharrezkoa da babes materiala, hau da, aurre egin beharreko arriskuaren eta zaindu beharreko instalazio-motaren arabeko defentsa baliabideak ematea eta horri buruzko eguneratzea eta araudian jasotzea zaintzaile-binomioen lana, gaur egun derrigorrezkoa baita industrialde, urbanizazio eta beste azpiegitura batzuetan. Horri dagokionez, aztertu beharko litzateke ebakien eta traumaren aurkako eskularru eta txalekoen erabilera eta, are gehiago, zerbitzu arriskutsuen kasuan, balen aurkako txalekoena, derrigorrezkoa izan beharko lukeen, bai eta babes-ekipamenduak eta hilgarriak ez diren defentsa-bitartekoak (hala nola defentsa-espraia eta elektrotxo-arma, Tasser pistola elektrikoa, adibidez) ematea ere. Gainerako kasuetan ere oraingoa baino luzeagoa den borra izan beharko lukete.

Halaber, segurtasun-zaintzaileen lan-babesa hobetzeko beharrezkoak diren neurriak hartu behar dira. Babes horrek ekarriko luke ez-betetze, abusu edo lege-iruzurreko egoera batzuk saihestea eta desagerraraztea, hala nola aparteko orduei buruzko araudia ez betetzea mugak gaintzeagatik; “pirata enpresa” deiturikoen legez kontrako jardunbideak etetea, munta txikiko kontra-

tuen subrogazioaren bidez legea eta langileen lan eskubideei iruzur egiten baitiete; segurtasun pribatuaren arloko hitzarmen sektoriala alde batera uztea edo ez aplikatzea, enpresei ahalbidetzen diena enpresa-hitzarmenen bidez langileen eskubideak nabarmen kaltetzen dituzten lan baldintzak berrikusi eta ezartzea, baldintza ekonomikoak dezente okertuz –kasu askotan, hori aipatu “pirata enpresek” egiten dute, horrekin guztiarekin bidea edukita geroago abantailarekin lehiatzea administrazio publikoen lizitazioetan, eskaintza ekonomiko anormalki baxuak aurkeztuta; horren ondorioz, langileek erosahalmena galtzen dute etengabe eta zenbaitetan enpresa horiek desagertu egiten dira, soldata asko ordaindu gabe utzita–. Horretaz gain, laneko arriskuen prebentzioaren arloko araudia, segurtasun pribatuko zaintzaileen arrisku berariazkoak jasoko dituena, betetzen dela zorrotzago zaintzea eta beti ere segurtasun enpresek kasuan kasuko defentsa-materiala ematea beren langileei, azkenik, egiazki gaitutako segurtasun-zaintzaileak ez diren pertsonak egiten duten intrusismo profesionalaren aurka egitea, eginkizunak behar bezala betetzea eta, horrenbestez, segurtasuna, arriskuan jarri eta kaltetzen baitu.

Agerikoa da beharrezkoa dela segurtasunaren arloko langileen prestakuntza hobetzea, bai oinarritzkoa bai etengabea. Horretarako, nazioan erdi mailako prestakuntza arautua eta espezializatua ezarri beharko litzateke, bai eta urteko etengabe-ko prestazioa ere, gaur egun nahikoa ez den urtean 20 ordukoa baino hobe, lehen sorospenak, suteak itzaltzea eta defentsa pertsonala bezalako irakasgaiekin. Horrek, zalantzarik gabe, eragina izanen luke segurtasun pribatuko langileen gaitasun operatiboan, bai poliziaekin bai larrialdien arloko langileekin lankidetzan aritzeko.

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Nazioko Gobernuak premia dezan segurtasun pribatuaren arloko araudia eguneratu eta egokitu dezan (batez ere, besteak beste, Segurtasun Pribatuari buruzko Erregelamendua onetsi zuen abenduaren 9ko 2364/1994 Errege Dekretua), sektoreari behar duen duintasuna emateko eta bere eginkizunak hobeto bete ditzan. Hala, behar duen babesa emanen zaio arlo hauetan:

A) Babes juridikoa, estatus profesionalari dagokiona, agintaritzaren agente izaeraren aitortza zalantzagabearen bidez.

B) Babes materiala, beharrezkoak diren babes-neurriak emanda, aurre egin beharreko arriskua-

ren neurrikoak eta horiei buruzko araudia eguneratuta, eta, halaber, araudian aurreikusita zaintzaile-binomioen lana, enpresaren arriskuen eta segurtasun-mailaren arabera. Horri dagokionez, aztertu beharko da ebakien eta traumaren aurka eskularru eta txalekoen erabilerak eta, are gehiago, zerbitzu arriskutsuen kasuan, balen aurkako txalekoena, derrigorrezkoa izan beharko duen, bai eta babes-ekipamenduak eta hilgarriak ez diren defentsa-bitartekoak (hala nola defentsa-espraia eta elektrotxoke-arma, Tasser pistola elektrikoa, adibidez) ematea ere. Gainerako kasuetan ere oraingoa baino luzeagoa den borra izan beharko lukete.

C) Lan arloko babesa, ez-betetze, abusu edo lege-iruzurreko egoera batzuk saihestea eta desagerraraztea ahalbidetuko duena: aparteko orduei buruzko araudia ez betetzea mugak gainditzeagatik, segurtasun pribatuko zaintzaileen arrisku berariazkoak aintzat hartzen dituen lan arriskuen prebentzioaren arloko araudiaren garapen falta eta araudia betetzen dela hobeto zaintzea (besteak beste, segurtasun enpresen betebeharrak gisa ezarrita langileei dagokien defentsa-material guztia ematea), bai eta egiazki gaitutako segurtasun-zaintzaileak ez diren pertsonak egiten duten intrusismo profesionalaren aurka egitea ere.

D) Segurtasunaren arloko langileen prestakuntza, bai oinarrizkoa bai etengabea. Horretarako, nazioan erdi mailako prestakuntza arautua eta espezializatua ezarri beharko litzateke, bai eta urteko etengabeko prestazioa ere, gaur egun nahikoa ez dena baino hobea.

2. Kontratazio publikoaren arloan zaintzea eginbeharrak ez betetzeagatik (horien artean, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta ez izateagatik) epai judizial bidez edo administrazio-ebazpen bidez zigortuak izan diren segurtasun arloko enpresek ez direla gaituta egonen lizitazio publikoetan parte hartzeko eta Nafarroako administrazio publikoekin kontratuak egiteko, horretarako beharrezkoak diren araudi-aldaketak bultzatuta.

3. Behar bezala bermatzea segurtasun pribatuko zerbitzuak modu egokian ematen direla, haien bideragarritasuna, esleipenaren egoera, kasu bada, eta enpresa esleipen-hartzailearen kredentzialak egiaztatzea.

4. Prestakuntza etengaberako urteko plan bat taxutzea segurtasun pribatuaren arloko langileentzat.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 8an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

